



ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

GAOn 2000n argitaratuta

Iragarkia

Jendaurreko erakusketa igaro eta tartejarritako erreklamazioari erantzun ondoren, 2000ko urtarrilaren 11an hartutako erabakiaren arabera ALTZOKO HILERRI ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA behin betikoz onartuta gelditu da eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70 artikuluekin bat etorritz, indarrean sartu dadin, testu osoa argitaratzen da.

ALTZOKO HILERRI ZERBITZUA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA.

I.TITULOA

XEDAPEN OROKORRAK.

1.Artikuloa

Altzoko udal Hilerria zerbitzu publiko bati lotutako jabari ondasuna da eta, haren titularra Udala izanik, berari dagokio hura administratu, zuzendu eta zaintzea.

2.Artikuloa

Udalari dagokio:

- a) Hilerria nahiz bertako eraikuntzak, zerbitzuak eta instalazioak antolatu, mantenu eta egokitzea.
- b) Partikularrei baimena, ematea eta hilerrian edozein motatako instalazioak burutzeko, Udalak zuzendu eta ikustatuaz.
- c) Kontzesioak ematea eta hileta eskubideak ezagutzea
- d) Legeak ezartzen dituen eskubideak eta tasak jasotzea.

II.TITULOA PERTSONALA

3.Artikuloa.

Hilerriko pertsonala Udal Mantenu Arduraduna da. Laguntza behar duenean edo titularraren aldi baterako hutsuneak betetzeko lan pertsonala edo aldi baterako pertsonala kontratatu daiteke.

4.Artikuloa.



ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

Hilerriko pertsonalak Udaleko organo eskudunak finkatzen duen ordutegia beteko du.

5.Artikulua.

Dagozkion lanak eta funtzioak bete eta, bere ahalmenen neurrian eta Udal organoen ahalmenak ez direnean, formulatzen diren eskaerak eta kexuak ebatziko ditu.

6.Artikulua.

Arduradun edo eta hilerriko langilearen funtzioak hauek dira:

- a) Hileta zerbitzuetako orduan hilerriko ateak ireki eta itxi.
- b) Ehorzketa lizentziaz arduratzea .
- c) Jasotzen duen dokumentazioa Udal bulegoetan eskuratzea.
- d) Dagokion baimenik gabe, gorpuak eta objektuak hilerrian sartu eta ateratzea galeratzea.
- e) Hilerriko departamentu guztiak beti behar bezalako garbitasun eta ordena egoeran egon daitezen zaintzea.
- f) Gorpuak hobiratzea.
- g) Gorpuak nitxoetatik ateratzea

7.Artikulua

Ez Udalak, ez horren ezein organoak, ez eta pertsonalak ere, ez dute inolako erantzunkizunik beregain hartuko hirugarrenek hilobietan eta hilerrian ipintzen diren objektuetan egin ditzaketen hondaketei dagokienez. Halaber, nitxoren bat irekitzeko unean, ez da gertaturiko hausturen erantzule izango.

III TITULIA HOBIRATZEEN ERREGIMENA

1. KAPITULOA. NITXOAK

8. Artikulua.

Hilerrian burutzen diren ehorzketa guztiak, Udalak eraikitako nitxoetan egingo dira.

9. Artikulua.

Hildakoaren senitartekoek nitxoa aukeratu ahal izango dute, beti ere une horretan betetzen ari den plantan.



ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

10. Artikulua

Estaldura sendiaren kontura izango da.

Nitxoaren estaldurak Udalak agindutako neurrikoa izan beharko du. Materiala nahiz haren kolorea sendiak aukera dezake. Ez da onartuko nitxotegiaren fatxada aldatzen duen eraikuntzarik.

11. Artikulua.

Nitxoen gaineko hobiratze eskubidea 10 urtetarako emango da, hobiratzea burutzen den egunetik hasita.

Epea amaitutakoan Udalak nitxoa libre utz dezake indarrean dagoen legedian jarritako prozedura jarraituz. Beraz, Udala baimenduta dago hezurak atera eta hezurtegi amankomunera botatzea, kostoak sendiari ordainaraziz.

Hamar nitxo hutsik dauden bitartean luzapen aukera emango da. Luzapena urte beterako izango da gehienez ere.

12. Artikulua.

Nitxoaren gaineko eskubidea eskuratu ahal izateko, aldez aurretik tasa ordaindu behar izango da, Ordenantza fiskalak ezartzen duenaren arabera.

IV.TITULUA HILERRIAREN BARRUKO ORDENA ETA GOBERNUA

13. Artikulua.

Hilerria behar den garaian irekia izango da.

14. Artikulua.

Hilerri zerbitzutako ibilgailuek eta hilerrian bertan erabili beharreko eraikuntza materialak eramaten dituztenek besterik ezin izango dute hilerrian sartu. Aipatutako garraio bideen jabeak hilerriko bide edo instalazioetan sortutako hondaketen erantzule izango dira eta egindako kalteak berehala konpontzera edo, hala badagokio, kalteordaintzera behartuta egongo dira. Jabea bertan ez badago, erantzunkizun hori bera kaltea sortu duen ibilgailuaren gidariari berehala galdetu edo eskatu ahal izango zaio.



ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

Partikularrek ekarritako lorontziak edo edukinontziak behin loreak ondatzen direnean bota egingo ditu hilerriko pertsonalak, partikularrari inolako azalpenik eman behar izan gabe.

15. Artikulua.

Gauean zehar espreski debekatua dago ehorzketak egitea eta hilerriaren barruan edozein motatako lanak burutzea, behar bezala justifikatutako aparteko kasuetan izan ezik eta beti ere Udalaren baimenarekin.

16. Artikulua.

Partikularrak nitxoak garbi edukitzeko beharra dute eta horrela ezean, Udalak titularra errekerituko du eta hark lanak adierazitako epean burutzen ez baditu, Udalak subsidiarioki egin ahal izango ditu, kostoa berari jasanaraziaz.

V. TITULUA

HOBIRATZEAK, DESOBIRATZEAK ETA LEKUALDAKETAK.

17. Artikulua.

Gorpuak nitxoetan sartzeak, ateratzeak eta lekualdaketak Gorpuen Osasun Jagoletzari (polizia) buruzko Erregelamenduaren arabera egingo dira.

18. Artikulua.

Hobiratzeak, desobiratzeak eta lekualdaketa guztiak, beharrezkoa den kasuan, dagokion osasun agintaritzak luzatutako baimenarekin egin beharko dira.

19. Artikulua.

Udal hilerrian hobiratzeak, deshobiratzeak eta leku aldatzeak erlijioaren edo beste edozein motatako arrazoiren ondoriozko diskriminaziorik gabe egingo dira.

20. Artikulua.

Hilerria betetzat joko da hamar nitxo hutsik daudenean. Une horretan desobiratze lanak egingo dira 10 nitxo hustuz, hilerrian denbora gehien daramatzatenetik hasita.

VI. TITULUA

HILETA ESKUBIDEAK

21. Artikulua.

Hileta eskubideak ordenantza honetan jasotako atalen arabera eskuetsiko ditu Udalak.



ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

22. Artikulua.

Hileta eskubideak dagokion erregistro liburuan inskribituko dira, eskatzaileari egiaztagiri bat emango zaiolarik.

23. Artikulua.

Hilerrian dauden nitxoak kontzesio garaian ezin dira saldu, trukatu edo transakzioaren xede izan.

24. Artikulua.

Emakidak edo kontzesioak honela izango dira:

- a) Pertsona fisiko bakarren izenean.
- b) Administrazio Publikoak ezagututako komunitate, erlijio elkarte edo eta asistentzi edo ospitale establezimendu baten izenean, hoiien kide, onuradun edo hartutakoek erabiltzeko.
- c) Beharrea aurkitzen den kasoan onartuko dira emakidak, eta ez aurrez erreserba gisa gordetzeko.

25. Artikulua.

Aseguru konpaniak eta antzekoak ezin izango dira inolaz emakiden titularrak izan.

26. Artikulu.

Udal Administrazioak luzatuko duen egiaztagiriak honako hau jasoko du:

- a) Nitxoaren identifikatuko duten datuak.
- b) Udalaren adjudikazio erabakiaren data.
- c) Titularren izen deiturak eta ENA.
- d) Hileta eskubideen kontzeptuan ordaindutako kopuruak.

27. Artikulua.

Nitxoaren emakidak hamar urteko iraupena edukiko dute eta luzaezinak izango dira.

28. Artikulua

Hileta eskubidearen iraungipena edo kaduzitatea dekretutako da eta dagokion emakida Udalarari itzuliko zaio:

- a) Eskubidea eman zeneko epea igarotzeagatik.
- b) Dagokion epearen barruan eskubideak edo tasak ez ordaintzeagatik.
- c) Titularrak espreski uko egiteagatik.



ALTZOKO UDALA

Tel. 65 24 13 — Fax: 65 09 55

20268 ALTZO (Gipuzkoa)

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehena: Ordenantza honetan espreski aurrikusi gabeko alderdietan gorpuen Osasun Jagoletzari buruzko Erreklamenduak aurrikusitakoari jarraitu beharko zaio.

Bigarrena: indarrean dagoen Tasei buruzko Ordenantza Fiskalaren arabera Hilerri Zerbitzuaren kontzeptuan aurrikusten diren Tasak hauek dira:

- Nitxoan sartzea, ateratzea eta leku aldaketak:	
Nitxoetan sartzeagatik.....	2.355
Desobiratzeagatik, hondakinak hilerri bertan lekuz aldatuz	2.355
Desobiratzeagatik, hondakinak herritik kanpora aldatuz	4.710
- Nitxoen emakida:	
10 urteko epean.....	2.355
Beste urte beteko luzapen bakoitzagatik.....	500

Hirugarrena: Orain arteko emakidak ere ordenantza honi lotuak geratzen dira, hauek ere hamar urteko epeaz emanak direlako.

Laugarrena: Ordenantza honek Udalak bere jabetzan dituen nitxo guztiak arautzen ditu.

AMAIERAKO XEDAPENAK.

Toki erregimeneko Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan xedatutakoa aplikatuz, ordenantza hau, testua osorik Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita 15 lanegun igaro ondoren jarriko da indarrean.

Altzon, 2000ko maiatzaren 8an.